



Nortzuk har dezakete ostatua Foru Aldundiko Aterpetxeetan?

Gipuzkoako Foru Aldundiko aterpetxeetako erabiltzaileak ondorengo hauek izango dira:

- Irabazi asmorik gabeko ikastetxeak.
- Irabazi asmorik gabeko entitateak.
- Desgaitasuna duten pertsonen elkarte edo entitateak, legez eratuak.
- Legez eratuta eta erregistroan izen emanda dauden gazte elkarteak.

Kasu hauetan, erreserbako gutxieneko pertsona kopurua 12koa izango da.

Zarauzko eta Hondarribiko aterpetxeetan ostatu har dezakete Gazteentzako Aterpetxeen Espainiako Sareko (REAJ) txartela edo International Youth Hostel Federation (IYHF) erakundearena dutenek. Txartelak indarrean egon beharko dira eta aterpetxean aurkeztuko dira.

Lo-zakua eraman behar da?

Ez, aterpetxean izarak ematen dira. Gainera, tarifa guztietan (lo eta gosaria/ pentsio erdia/pentsio osoa) izaren zerbitzuari dagokion prezioa sartuta dago.

Zeintzuk behar dute baimena?

Aterpekide txartelaren titularrak diren adingabeek (18 urtetik behera) helduen laguntzarik gabe doazenean.

Aterpetxeetan sukaldea erabili daiteke?

Ez, debekatuta dago. Gainera, ezin da kanpoko jaki edota edaririk sartu.

Animaliak eraman daitezke gazte aterpetxeetara?

Ez, debekatuta dago.

Ze ordutan ireki eta isten dira aterpetxeetako ateak?

Ordutegia honakoa da:

- Ireki: goizeko 8:00etan.
- Itxi: gaueko 24:00etan. Ordu honetatik aurrera isiltasuna gorde behar da.

Ze ordutan egiten dira otorduak?

- Gosaria: 9:00etan
- Bazkaria: 13.30etan
- Afaria: 20:30etan (Seguran: 20:00etan)

Aterpetxeetan erre daiteke?

Ez. Alkohola, erretzea eta beste drogen kontsumoa debekatuta dago aterpetxeen eremu osoan.

Aterpetxeetan badago segurtasun-kutxarik?

Ez, erabiltzaile bakoitza bere gauzetaz arduratu behar da.